

ALDI BATERAKO ENPLEGUA  
EGONKORTZEKO HAUTAKETAPROZESUAK,  
ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN  
2.1 ARTIKULUAREN ONDORIOZKOAK  
(OPOSIZIO-LEHIAKETA)  
GIZARTE ZERBITZUETAKO TEKNIKARIKO  
PROZESUA

PROCESOS SELECTIVOS DE ESTABILIZACIÓN  
DE EMPLEO TEMPORAL DERIVADOS DEL  
ARTÍCULO 2.1 DE LA LEY 20/2021, DE 28 DE  
DICIEMBRE (CONCURSO OPOSICIÓN)  
PROCESO TÉCNICO/A DE SERVICIOS  
SOCIALES



**1. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira:**

- a) Gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak.
- b) Espainiako nazionalitatea.
- c) Espainian bizi diren pertsonen berdintasuna legearen aurrean, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.
- d) Gizabanakoen eta giza taldeen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasunerako bermea.

**2. Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera, nekazaritza eta abeltzaintza .dira:**

- a) eskumen eskusiboa
- b) garatzeko eskumena
- c) estatuaren eskumena
- d) betearazteko eskumena

**3. Udal-antolaketa honako arau hauen araberakoa da:**

- a) 5.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerrri guztietan daude alkateordeak.
- b) Gobernu Batzordeari dagokio udal zerbitzuak eta udal-obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- c) Osoko bilkurari dagokio gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
- d) Alkateordeei dagokie alkateari bere eskumenak gauzatzen laguntzea.

**4. Interesdun kontzeptua. Kolektibo hauetako zein ezin da interesduntzat jo administrazio-prozeduran?**

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidualen titular modura hura sustatu dutenak.
- b) Eskubide edo interes legitimo kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- c) Prozedura haiek ez hasi arren, hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- d) Behin betiko ebazpena eman duen ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak.

**5. Administrazio-egintzaren elementuak. Adierazi elementu okerra edo faltsua:**

- a) Subjektua edo elementu subjektiboa
- b) Objektua edo elementu objektiboa
- c) Hasiera, edo elementu teleologikoa edo kausala
- d) Formak edo elementu formala

**6. Administrazio-prozedura orokorraren faseak. Adierazi fase/elementu okerra edo faltsua:**

- a) Hasierako fasea - Aurretiazko informazio-aldia
- b) Antolamendu-fasea – Espediente elektronikoa
- c) Instrukzio-fasea – Nahitaezko txostenak
- d) Amaiera-fasea – Entzunaldi-izapidea

**7. Herri-administrazioen egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan. Adierazi zein den esaldi okerra edo faltsua:**

- a) Ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten duten administrazio-egintzak.
- b) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenak.
- c) Gaiagatik edo lurraldeagatik organo nabarmen eskumengaberen batek eman dituenak.
- d) Funtsezko betekizunak bete gabe ahalmen edo eskubide batzuk eskuratzeko bide ematen duten egintza espresu edo presuntziozkoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak.

**8. Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Adierazi zein den esaldi okerra edo faltsua:**

- a) Administrazio-xedapen orokorren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.
- b) Ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa-gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsua eta aukerako berraztertze-errekurtsua aurkezteko.
- c) Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari.
- d) Ez onartzeko kausa da, besteak beste, errekurtsu-jartzailearen legitimaziorik eza, errekurtsorik jar dakioken egintza bat izatea, errekurtsua jartzeko epea igaro izana eta/edo errekurtsuak funtsik ez izatea, nabarmen.

**9. Leioako Udalerriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Araudi Erregulatzailaren arabera, zerbitzutik kanpo geratzen dira:**

- a) Zerbitzu normalizatua eman baino lehen, etxeko garbiketa orokorrak.
- b) Konpainia eta paseorako zerbitzua.
- c) Jarrera aldaketak.
- d) Arropa gainbegiratzea eta ordenatzea.

**10. Leioako Udalerriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak eriondoko arreta emango du (adierazi erantzun zuzena):**

- a) Gehienez ere hiru hilabetez.
- b) Arreta pertsonalerako eta etxeko arretarako.
- c) Gehieneko maiztasuna astean 10 ordukoa izango da.
- d) Zerbitzua Alkatetzaren dekretu bidez emango da.

**11. Gizarteko bazterketa aitortzeko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 1eko 85/2014 FORU DEKRETUAREN arabera, adierazi aukera zuzena:**

- a) Gizarte-bazterketa aitortzeko prozedura interesdunak, edo, bestela, haren ordezkaritza duenak, eskaera egin ondoren hasiko da beti.
- b) Diagnostiko-kategoria gisa, gizarte-bazterketak gradu hauek izan ditzake, intentsitateari dagokionez: bazterkeria-arriskua, moderatua eta larria.
- c) Gizarte-bazterketa aitortua izateko eskubidea izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan bizilekua izan eta benetan leku horretan bizi direnek, nahiz eta erroldatuta ez egon.
- d) Arreta Pertsonalizatuko Plana ofizioz berrikusiko du Bizkaiko Foru Aldundiak, sinatu eta urtebetera.

**12. Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen 26. artikulua arabera, honako hauei dagokie mendetasunaren II. gradua:**

- a) Mendekotasun larria: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko, egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du nahi zaintzaile baten etengabeko laguntza, edo laguntza zabala behar du autonomia pertsonalerako.
- b) Mendekotasun larria: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduerak egiteko, egunean hiru aldiz baino gehiagotan, baina ez du nahi zaintzaile baten etengabeko laguntza, edo laguntza zabala behar du autonomia pertsonalerako.
- c) Mendekotasun moderatua: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduerak egiteko, gutxienez egunean behin, edo aldizkako laguntza edo laguntza mugatua behar du autonomia pertsonalerako.
- d) Mendekotasun moderatua: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduerak egiteko, egunean behin baino gehiagotan, edo aldizkako laguntza edo laguntza mugatua behar du autonomia pertsonalerako.

**13. Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren arabera, Ekonomia-, Lan- eta Egoitza-eremuko 3. dimentsioak honako hau jasotzen du:**

- a) Erroldatzea, erroldatuta emandako denbora eta atzeritarraren identifikazio-txartela edo bisatua edukitzea.
- b) Ostatu-egoera, ostatuaren egonkortasuna, Etxebizitza edo ostatu familiar partikularrean ostatu harturiko pertsonak.
- c) Ostatu kolektibo instituzionalean daudenak, ostaturik gabekoak edo ostatu baztertzailleetan daudenak.
- d) Pertsonak diru-sarrerak ba ote dituen eta familia-unitateak diru-sarrerak ba ote dituen.

**14.- Adingabe bat indarkeria- edo babesgabetasun-egoera batean dagoelako zantzuak edo horren susmoa dagoenean, agintaritza eskudunari jakinarazteko betebeharra dago. Zer da jakinarazpen kualifikatua egiteko betebeharra?**

- a) Beren kargua, lanbidea edo eginkizunak, ofizioak edo jarduera dela-eta, adingabe baten indarkeria- edo babesgabetasun-egoeraren baten berri duten pertsonak.
- b) Adingabeen aurkako babesgabetasunean eta/edo indarkerian zuzenean lan egiten duten pertsonak.
- c) Pertsona heldu guztiak kualifikatuak dira adingabeen indarkeria- edo babesgabetasun-egoera baten aurrean.
- d) Guztiak dira okerrak.

**15. Adingabe baten arrisku-egoera baloratu ondoren, Udalaren eskumena izango da:**

- a) Egindako balioespenaren arabera, adingabea arrisku-maila arinean dagoenean.
- b) Egindako balioespenaren arabera, adingabea arrisku-maila ertainean dagoenean.
- c) Babeseko udal- eta foru-profesionalen artean hala adosten dutenean.
- d) A eta B zuzenak dira.



**16. Adingabearen bizitzarako, osotasunerako, osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larriaren zantzuak daudenean, inguruabarrek eskatzen dituzten berehalako babes-neurriak hartuko dira, hala badagokio, adingabea osasun-zentroan edo -zerbitzuan atxikitzea barne, bai eta ikastetxean ere, kasuaren arabera, harik eta agintaritza eskudunak bere gain hartu arte edo hartu beharreko neurria erabaki arte.**

**Aurreko paragrafoan esandakoari dagokionez, aukeratu baieztapen zuzena:**

- a) Egia da, baina aurretiazko neurri gisa, beti jakinarazi beharko zaio adingabearen amari, aitari edo tutoreei, nahiz eta beharrezko babes-neurriak ezarri beharko diren.
- b) Egia da.
- c) Inolako kasutan ezin izango du ezelako agintaritza edo zerbitzuek adingabea atxiki.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

**17. Guraso-zailtasunak dituzten familiekin eta haien ingurunearekin lan egiteko, babesik gabe geratzeko zaurgarritasun-egoeran daudenean edo babesik gabe geratzeko arrisku arin/ertainean daudenean, adierazi aukera zuzena:**

- a) Foru-erakundeek eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek elkarrekin zehaztuko dute ezarri beharreko neurri mota.
- b) Udaleko gizarte-langileak premiaz erantzungo die udal-zerbitzura iristen diren kasuei, eta gehienez hilabeteko epean zehaztuko du zer baliabide aplikatu behar den.
- c) Udalerriek eta/edo mankomunitateek hala badagokie, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko taldeak izango dituzte.
- d) Esku-hartze psikosozialeko talderik ez duten udalerrien kasuan, kasuak Foru Aldundiaren adingabeen zerbitzura bideratu beharko dituzte, egoera eta aplikatu beharreko baliabidea balora dezaten.

18. Indarrean dagoen legeriaren arabera, udalek eta foru-aldundiek, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko dituzten eskumenen esparruan, adingabeen egoera baloratzeko behar den informazioa eta datuak eskatu ahal izango dituzte, interesdunaren edo eragindakoaren eta, hala badagokio, aitaren, amaren edo legezko edozein ordezkariaren baimenik gabe.

**Aurreko paragrafoan esandakoa zuzena al da?**

- a) Haurren edo nerabearen egoera baloratzeko egokitzat jotzen diren datuak eta informazioa eskatu ahal izango dira beti, inoiz ez erreferentzia-helduen datuak.
- b) Egia da, hala ezartzen baitu Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legeak.
- c) Bai, baina helduei (aita, ama, tutorea) prozedura jakinarazi beharko diete aurretik, eta adostasuna eman beharko dute.
- d) Indarrean dagoen legeriak ez du horri buruzko ezer jasotzen.

**19. Adierazi honako hauetatik zein EZ den genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Ordainketa Bakarreko Prestazio Ekonomikoa eskuratzeko baldintza bat:**

- a) Enplegua lortzeko zailtasunak izatea, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren txosten baten bidez egiaztatuta.
- b) Laguntza hori lehenago jaso ez izana.
- c) Genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzea, kondena-epaiaren, indarrean dagoen babes-aginduaren eta, salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostenaren bidez.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eskabidea aurkeztu baino 12 hilabete lehenago jarraian.

**20. Deribazio judizialaren bidezko familia-elkargunearen (FE) eskumena da:**

- a) Forala.
- b) Udalarena.
- c) Eusko Jaurlaritzarena.
- d) Sistema Judizialarena.

**21. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua oinarri hartuta, zerbitzu hauetako zein da udal-eskumenekoa?**

- a) Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua.
- b) Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa.
- c) Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.
- d) Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

**22. Etxeko indarkeriaren biktima bat babesteko aginduak honako hauek jasoko ditu:**

- a) Arlo zibileko kautela-neurriak.
- b) Gizarte arloko kautela-neurriak.
- c) Zigor-arloko kautela-neurriak.
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**23. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7. artikulua araber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautuko duten printzipioak honako hauek izango dira:**

- a) Unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea, isilpekotasuna eta hurbiltasuna
- b) Unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea, erantzukizun publikoa, kalitatea eta hurbiltasuna
- c) Unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea, askatasuna, erantzukizun publikoa eta koordinazioa eta lankidetzaz
- d) Unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea, autodeterminazioa, erantzukizun publikoa eta gizarte-ekimenaren sustapena

**24. Esku-hartze sozioedukatio eta psikosozialeko prestazio teknikoak, 12/2008 Legearen 15. artikulua araber, honako hauek hartuko ditu barnean:**

- a) Hauek bakarrik: estimulazioa eta errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea, heziketan esku-hartzea eta arlo psikosozialean esku hartzea.
- b) Hauek bakarrik: esku-hartze sentoriala, esku-hartze soziorabozala edo esku-hartze sozioramiliarra.
- c) Hauek bakarrik: estimulazioa eta errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea, arlo okupazionalan esku hartzea, heziketan esku hartzea eta arlo psikosozialean esku hartzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**25. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak adierazten duen bezala, udal-eskumeneko zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomikoen antolaketari dagokionez, honako hauek daude:**

- a) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ), eguneko arretarako zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua.
- b) Informazio, Balioespen, Diagnostiko eta Orientabide Zerbitzua, Arlo okupazionalako zerbitzua edo zentroa eta Eguneko arretarako zerbitzua.
- c) Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua.
- d) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eta Familian esku hartzeko eta bitartekaritza-lanak egiteko zerbitzua.

**26. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren III. eranskinak adierazten du zein den premien balorazioaren sailkapena:**

- a) Baliespen soziala, balioespen ekonomikoa eta bizikidetz-balioespena
- b) Hasierako balioespena eta balioespen sakona
- c) Beharren hasierako balioespena, balioespen espezializatua eta jarraipenaren balioespena
- d) Banakako balioespena, familiaren balioespena eta balioespen komunitarioa

**27. Gizarte Lanean esku hartzeko ereduen arabera, honako hauek izan daitezke:**

- a) eredu kognitibo-konduktuala, persona ardatz duen eredu eta eredu humanista eta existentziala
- b) eredu kritikoa/erradikala, krisietan esku hartzeko eredu, kasuak kudeatzeko eredu

- c) eredu sistemikoa, familia- eta gizarte-eredua, gizarte-bazterketako eredia
- d) eredu psikodinamikoa, zereginean oinarritutako eredia, eredu psikosozioedukatihoa.

**28. Zer da gizarte-lanaren objektua?**

- a) Lan eta ekintza profesionalaren hartzaileak
- b) Gizabanakoak deskribatzen duen egoera
- c) Gizabanakoak, taldeak edo komunitateak bizi duen egoera/arazoa
- d) Arazoa aztertzea, diagnostikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea

**29. Elkarrizketa gizarte-lanean hauxe da:**

- a) dokumentazio-teknika bat
- b) informazioa erregistratzeko dokumentu-euskarria
- c) teknika itxi bat, ezagutza profesionala erakustea duena helburu
- d) profesionalaren eta erabiltzailearen artean ezartzen den harremana

**30. Gizarte-lanean txosten soziala hauxe da:**

- a) hasierako dokumentu labur eta oinarrikoa, erabiltzailearen ezinbesteko datuak erregistratzen dituena
- b) zuhaitz genealogiko espezifikoa, erabiltzaileak bere ahaidetasun-egituran duen posizioa adierazten duena
- c) behaketaren eta elkarrizketaren bidez egindako azterlanetik eratorritako dokumentu-tresna gisa balio duen irizpen teknikoa
- d) teknikarik garrantzitsuena, laguntza profesionaleko pertsonen arteko harremana adierazten baitu erabiltzailearen eta gizarte-langilearen artean.

## **B ZATIA – 1. KASU PRAKTIKOA**

**Marta eta bere neba Raúl Leioako Gizarte Zerbitzuetako hitzordura doaz. Premiazko laguntza nahi dute 74 urteko Elvira amarentzat, Gurutzetako Ospitalean egon baita ingresatuta istripu zerebrobaskular baten ondorioz.**

**Joan den astean alta eman diote, eta neba-arreben artean konpondu dira hura zaintzeko, baina egoerak gainezka egin die. Ohean dago, ibiltzeko ezintasuna du, eta eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako laguntza behar du.**

**Badakite amaren egoerari lehenago heldu behar ziotela; izan ere, badira hilabete batzuk, narriadura kognitiboaren zantzuak ageri zaizkiola.**

**31. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, planteatutako kasu honetan zein da balizko baliabideetara sartzeko atea?**

- a) Gizarte Larrialdien Foru Zerbitzua (GLFZ)
- b) Etxetic Zerbitzua
- c) Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio Zerbitzua
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

**32. Marta, bere amaren zaintza bermatzeko, Elviraren etxean erroldatu da. Mendetasunaren balorazioa egin ondoren, 3. graduko mendekotasuna duela ondorioztatu da. Zer baliabide eta zerbitzutarako eskubidea izango lukete?**

- a) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ)
- b) Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) eta Etxetic
- c) Gizatek
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

**33. Elkarrizketan, Martari eta bere neba Raúl Etxeko Laguntza Zerbitzua zertan datzan azaldu zaie. Biek uste dute laguntza oso garrantzitsua izango dela, amari eskainiko diolako (adierazi zein den erantzun okerra):**

- a) arropa garbitzea, eskegitzea eta lisatzea
- b) garbitasun eta higiene pertsonala
- c) pixoihala aldatzea eta gorputzaren hidratazioa
- d) konpainia eta ibilaldiak

**34. Leioako Udalaren Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen Erregelamenduaren arabera, Elviraren espedientea izapidetzeko:**

- a) Arreta-proposamen bat beharko da, zerbitzu mota eta zerbitzuaren intentsitatea zehaztuta, onuradunak familiaren laguntzarik ez duenean bakarrik.
- b) Ez da beharrezkoa izango elkarrizketak edo etxez etxeko bisitak egitea premiak ebaluatzeko, familiak argi eta garbi adierazten badu eskaera.
- c) Teknikariek aurkeztutako dokumentazioa aztertuko dute, eta zerbitzuaren beharrak ebaluatzeko, elkarrizketak, etxez etxeko bisitak eta behar diren kudeaketak egingo dituzte.
- d) Zenbait kasutan, Gizarte Laneko teknikariak arduratuko dira izapidetzeaz, ebazpena baloratu eta proposatzeaz eta eskaera onartzeaz.



## **B ZATIA – 2. KASU PRAKTIKOA**

Duela gutxi, Leioako udaltzaingoak esku hartu behar izan du udalerriko bizilagun baten etxean. Idoia, 58 urteko emakumea, babes ofizialeko etxebizitza baten jabea da. Duen alaba bakarra Kanadan bizi da, eta ezin izan du berarekin harremanetan jarri hainbat egunez. Udaltzainak etxera joan eta txirrina jotzean, Idoiak oihuka esan die ezin duela ireki, erori egin dela eta sentitzen duen mina dela-eta ezin dela mugitu. Suhiltzaileei deitu eta etxean sartu ondoren, ambulanzia medikalizatu batek Idoia Urdulizko ospitalera eraman du, balorazioa egiteko. Udaltzaingoak etxebizitzaren zikinkeria-egoera izugarriaren berri eman die udaleko gizarte-zerbitzuei, zeinetan botila eta ardo-kartoi ugari aurkitu dituzten.

**35. Udaleko gizarte-zerbitzuen aldetik poliziaren parte jasotzean, kontuan hartuta Idoia gizarte-prestazioen jasotzailea dela eta erreferentziazko profesionala esleituta duela, honako hau litzateke lehen esku-hartzea:**

- a) Udal-brigadek garbiketa orokorra egitea
- b) Idoiarekin harremanetan jartzea, zer egoeratan dagoen jakiteko eta ospitaleko gizarte langileekin koordinatzeko baimena eskatzeko.
- c) Idoiren alabari dei egitea, egoeraren berri emateko eta amaren etxebizitza nola dagoen jakinarazteko.
- d) Epaitegiari gogoz kontrako ingresoa eskatzea psikiatria-arloan, desintoxikazioa errazteko.

**36. Idoiak, erorikoa dela-eta, ospitalean ingresatuta jarraitzen du. Ebakuntza kirurgikoa egin behar izan diote aldakako protesia jartzeko. Halaber, desintoxikatzeko prozesua egin du ospitaleratze-aldian. Ospitaleko gizarte langilea basearekin jarri da harremanetan ospitaleko altarako aukerak koordinatzeko, eta egokiena aukeratu behar da:**

- a) Idoiak, osatzeko laguntza beharko duenez, eriondoa unitate soziosanitario batean egitea onartuko luke.
- b) Idoiak, osatzeko laguntza behar duenez, eta ospitaleko gizarte langileak proposatuta, etxeko laguntza-zerbitzua onartuko luke, nahiz eta basetik ondorioztatu den mendekoa ez denez, ez dela bidezkoa.
- c) Idoiak, Ospitaleko gizarte langileak proposatuta, mendekotasun-balorazioa eskatu du, familia-inguruneke zainketetarako prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izateko, Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) pribatua kontratatzeko diru-sarrerak izan ditzan.
- d) Idoiak, gizarte langileak proposatuta, aldi baterako egoitza-plaza eskatuko BFari, osatu ahal izateko.

**Idoiak, urte luzez kontsumitu ondoren, bere gaitasun kognitiboak narriatuta dauzka, eta, horren ondorioz, laguntza eta gainbegiratzea behar ditu bere burua zaintzeko oinarrizko jarduera batzuk egiteko (janaria prestatzea, botikak hartzea, dirua kudeatzea...). Gainera, familia-sareak (alabak eta anai-arrebek) amore eman diote laguntza emateari. Bestalde, ia ez du bizitza sozialik.**

**37. Udaleko gizarte-langileak Idoiaren bazterketa-balorazioa egitea erabaki du, kasua BFara bidali ahal izateko. Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren arabera, autozaintzarako eta higienerako oinarrizko gaitasun kognitiboak balioesten dituen dimentsioa honako hau da:**

- a) 9. dimentsioa (gaitasun eta trebetasun sozialak), B (gaitasun kognitiboa))
- b) 9. dimentsioa (gaitasun eta trebetasun sozialak), D (beste gaitasun eta trebetasun batzuk).
- c) 9. dimentsioa (gaitasun eta trebetasun sozialak), C (gaitasun instrumentala)
- d) 9. dimentsioa (gaitasun eta trebetasun sozialak), A (gaitasun soziala)

**38. Baseko gizarte-langileak balorazioa egin eta Idoia gizarte-bazterkeriako egoera larrian dagoela zehaztu ondoren, honako hau esan dezakegu:**

- a) 2. irizpidean 2 balioa duten 5 adierazle baino gehiago ditu.
- b) 1. irizpidean 2 balioa duten 5 adierazle baino gehiago ditu.
- c) 1. irizpidean 2 balioa duten 2 eta 5 adierazle artean ditu.
- d) 2. irizpidean 2 balioa duten 2 eta 5 adierazle artean ditu.

### B ZATIA - 3. KASU PRAKTIKOA

Maria, 22 urtekoa, Leioan bizi da Manuel senarrarekin eta bi alabekin batera: Ainhoa, 2 urtekoa, eta Miren, 4 urtekoa. Bizi diren etxebizitzan Julia ere bizi da, Mariaren ama. Juliak II. mendekotasun-gradua du aitortua, eta Maria da haren zaintzaile nagusia, sendatzaileaz gain. Maria duela 6 hilabete dago erroldatuta etxebizitzan. Mariak ez du laguntza-sare sozialik; izan ere, Manuelekin hasi eta urtebetera galdu zuen harremana lagunekin.

Mariak ez du lanik egiten, Manuelen mende dago ekonomikoki, eta hark egiten duen gastu bakoitzaren justifikazioa eskatzen dio.

Joan den igandean, udaltzaingoaren patruila bat joan zen haien etxera 23:00etan, bizilagun baten telefono-deiari erantzunez. Bizilagunak ohartarazi zuenez, etxebizitzan oihuak, kolpeak, eta alabatxoak negar batean entzuten ziren. Iristean, Mariak hainbat kontusio eta aurpegian zauriak zituela aurkitu zuten.

Maria aztoratuta zegoen, oso urduri, eta esan zien ohikoa dela Manuelek eraso egitea. Une horretan, poliziak Manuel atxilotu eta ertzain-etxera eramanez. Han, epaiketa azkarraren zain geratu zen atxilotuta, eta Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuari eman zioten gertatutakoaren berri.

**39. Genero-indarkeriaren biktima adingabeetan esku-hartze familiarreko zerbitzura (TXIKIAK) bidera daitezke Mariaren alabak?**

- a) Miren bakarrik bideratu ahal izango da zerbitzu horretara.
- b) Miren zein Ainhoa bideratu ahal izango dira Zerbitzura.
- c) Ainhoa bakarrik bideratu ahal izango da Zerbitzura.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**40. Genero-indarkeriagatik eta babes-aginduagatik kondena-epaia ematen bada, gizon horrek bisitak izan ditzake alabekin?**

- a) Bai, izan ditzake; izan ere, genero-indarkeriako delitu batengatik epai bat egoteak ez du inolako loturarik aitak bere seme-alabekin bisitak izateko duen eskubidearekin.
- b) Alabek elkargune batean bakarrik eduki ahal izango dituzte bisita gainbegiratuak; izan ere, genero-indarkeriako delitu batengatik inputatua izan denez, epaileak adingabeekin bisita gainbegiratuak adostu behar ditu beti.
- c) Aitak ez du inoiz bisita-eskubiderik izango; izan ere, genero-indarkeriako delitu batengatik inputatua izan denez, epaileak bisita-erregimena etetea erabaki behar du beti, haren mendeko adingabeekin.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**41. Epaiketa egin ondoren, genero-indarkeriagatik kondenatua izan da Manuel; zerbitzu edo programa espezializaturen batera bidera daiteke?**

- a) Manuel Esnatu Zerbitzuan tratu txarren egileei laguntza psikologikoa emateko programara bideratu ahal izango da.
- b) Manuel ezin izango da Esnatu Zerbitzura bideratu, genero-indarkeriagatik kondena dagoelako.
- c) Manuel ezin izango da Esnatu Zerbitzura bideratu, zerbitzu horrek sexu-askatasunaren aurkako delituen egileei arreta emateko zerbitzua baino ez duelako.
- d) Ez dago tratu txarren egileei laguntza psikologikoa emateko programarik Bizkaiko Foru Aldundian.

---

**42. Emakume horrek izango al luke Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzeko eskubiderik?**

- a) Ez, ezin izango luke, erroldan antzinasunaren baldintza betetzen ez duelako.
- b) Ez, ezin izango luke, adinaren baldintza betetzen ez duelako.
- c) Ez, ezin izango luke, ez dituelako ez adinaren eskakizuna, ez erroldako antzinasunarena betetzen.
- d) Bai, egin dezake.

## **B ZATIA – 4. KASU PRAKTIKOA**

Hiru seme-alaba dituen senar-emazteek osatutako familia batek gizarte-zerbitzuetara jo du: 13 urteko Jon, 7 urteko Maider eta 4 urteko Aitor. Kezkatuta eta haserre daude Jon seme nagusiaren portaerarengatik; izan ere, institutuan bigarren hezkuntzan hasi zenetik, oldarkor agertzen da haiekin, eta oso disruptibo ikastetxean. Ziur aski errepikatu egingo du. Behin baino gehiagotan kanporatu dute. Haiek ez dakite nola bideratu jokabide horiek. Gainera, Maider alabak ikasteko zailtasun handiak ditu. Eskolan, bere garaian, arreta goiztiarraren beharra zehazteko balorazio bat eskatu bazen ere, ez zen inoiz egin. Aitor haur-eskolan dabil, eta ez dute berarekiko inolako kezkarik adierazi.

Jonen jokabideari heltzeko laguntza eskatu dute.

### **43.- Zein izango litzateke udaletako gizarte-zerbitzuek egin beharreko lehenengo ekimena:**

- a) Dauden baliabideen berri emango zaie, egokien deritzotena aukeratu ahal izan dezaten.
- b) Adingabeen arriskua zehazteko eta esku-hartze egokiena bideratu ahal izateko balorazio bat egitea proposatuko zaie.
- c) Haurren Osasun Mentalera bideratuko dituzte, Jon baloratu dezaten.
- d) Hezitzaile baten esku-hartzea eskainiko zaie, Jonekin esku har dezan eta bere jokabidea birbideratzen lagun diezaion, hori baita gehien kezkatzen eta larritzen dituen.

**44.- Mainerren ikasteko zailtasunari dagokionez:**

- a) Foru Aldundira bideratuko dira, arreta goiztiarraren beharra baloratzeko.
- b) Udalerrian eskola indartzeko dauden baliabideen berri emango zaie.
- c) Balorazioa eskatuko zaie ikasteko zailtasunak baloratzeko osasun-arloko eta/edo eskolako profesionalei eta, hala badagokio, Berritzeguneari, eta, hala bada, jarraitu beharreko tratamendua diruz laguntzeko gaitasun ekonomikoa baloratuko da.
- d) Aitarekin eta amarekin landuko da gai hori, haurren ikasteko zailtasunak udalaren eskumen eksklusiboak direlako.

**45.- Hiru anai-arrebetako baten batek tratu txarren sintomatologia badu (ubeldurak, adingabeen hitzak...), zer egin behar da?**

- a) Kasuaren ardura duen profesionalak, ofizioz eta gurasoen baimenik gabe, informazioa eskatu ahal izango die baloratuko diren hurrekin zerikusia duten beste profesional batzuei (tutoreak, medikuak...), balorazioa egiteko informazio garrantzitsua duten jakiteko.
- b) Kasuaren ardura duen profesionalak premiaz helarazi beharko die espedientea Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu Espezializatuei, Udaleko Gizarte Zerbitzuek hasitako balorazioarekin jarrai dezaten.
- c) Kasuaren ardura duen profesionalak berehala hitz egingo du susmoaz aitarekin eta amarekin, eta tratu txarren susmoak argitu edo azaldu ezin badituzte, idatzizko baimena eskatuko die beste profesional batzuen eta, hala erabakitzen bada, adingabeen informazioa jaso ahal izateko.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



**46.- Balorazioan zehar Jon, Maider eta/edo Aitorren familia barruko sexu-abusuen susmo funtsatuak badaude, familiak aitortu gabe edo modu babesgarrian jardun gabe:**

a) Berehala ekingo zaio udalerriko talde psikosozialarekin esku hartzeari, abusurik dagoen ala ez argitu dezan.

b) Kasua Bizkaiko Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzura bideratuko da, Sexu-indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Zerbitzuak (SEIP) izan dezan sexu-abusua egon den baloratzearen arduraduna.

c) Eragindako adingabea edo adingabeak Uribe Kosta Haurren Osasun Mentaleko Zentrora bideratuko dira, abusua dagoen ala ez baloratu dezan.

d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

